

AIARALDEA *hemen*



RAISA ALAVA:
“Komikiko orrietan igarri egiten da oso ondo pasatu dudala *Sumidero*-ko orriak marrazten” 14-17 or.

GEHIGARRI BEREZIA:
Gabonetan Aiaraldean kontsumitu, oparitu eta gozatzeko gida



“*Hetero-patriarkatuak influentzia handia dauka emakumeon plazerean*”

AMURRIO 5
Amurrioko Gazte Asanbladak 10 urte beteko ditu 2024an
Jaialdia antolatu dute urteurrena ospatzeko, urtarrilaren 20an

AIARALDEA 8
Tubacexeko gazte auziperatuak kartzela arriskutik kanpo
Abenduaren 11n izan zen greba mugagabetik eratorritako azken epaiketa

OKONDO 12-13
“Bederatzi urte baliatu ditut *Los Herederos del Caos* eleberria idazteko”
Lander Saiz gazteak eleberria argitaratu zuen urrian, hainbat lagunen laguntzarekin

KULTURA 16
Goya sarietarako izendatu dute 20.000 *especies de abejas* filma
Hamabost izendapen jaso ditu Esti Urresolaren lehenengo film luzeak

KULTURA 17
Burubio Kulturguneko kontzertuak eten behar izan dituzte
Elkartea atsekabetuta dago Udalaren komunikazio moduengatik

KIROLA 18-19
Ehunka kirolari bildu dituzte Laudioko eta Amurrioko krosek
Indar erakustaldia egin du atletismoak azken asteetan Aiaraldean

Izan AMURRIO

MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK

www.apymca.com
izanamurrio@apymca.com

elkarrizketa

“Emakumeon plazera mugatu eta zigortu egiten da”



ZER PUNTURA ARTE BALDINTZATZEN DU KRISTAUTASUNAK EMAKUMEON PLAZERA? GALDERARI ERANTZUN DIO **BESAIDE ASTOBIZA**k (Orozko, 2000) AIARALDEA KOMUNIKABIDEAK EKOIZTUTAKO MELOIA SAIOAN.



Elkarrizketa **Onitze Garcia Obregon**
Argazkiak **Naia Vallejo Alonso**

Lehenik eta behin, nor da Besaide Astobiza?

Nik psikologia ikasi nuen, eta gaur egun sexologia ikasten nabil. Bere momentuan, gradu amaierako lana emakumeen plazeraren inguruan egin nuen.

Egindako lan horretatik zer titular edo ondorio nagusi atera zenuen?

Esango nuke ondorioa izan zela heteropatriarkatuak influentzia handia dukala emakumeon plazeretan, hori mugatuz eta baita zigortuz ere.

Nondik dator influentzia hori guztia?

Egia da hasiera batean, historikoki, emakumea goraipatua zela. Birjina hitzak esan nahi zuen emakumeak gizonen legeetatik aske bere plazeraz eta sexualitateaz bizitzeko kapazitatea zuela. Kristautasunaren etorrera eta gorakadarekin, emakumea zapaldua izan zen, horrekin batera baita haren sexualitatea, eta, bereziki, haren plazera.

Hori kulturalki gaur egunera ekarrita, non ikusi dezakegu islatuta?

Nik esango nuke ikusten dela batez ere emakumezkook plazeraren sentitzeko eta bizitzeko dugun momentuan sortzen diren barne gatazka eta oztopoetan. Batez ere erruduntasun sentimenduetan.

Egia da erruduntasuna dela historian zehar mantendu dugun zerbait. Gaur egun ere oso ohikoa da errua sentitzea. Nola baldintzatzen gaitu horrek?

Nik esango nuke emakumeok beti egon behar dugula beste baten plazererako, edo betse baten nahi eta beharretarako. Emakumeak plazererako objektu eta subjektu bezala ikusi gaituzte. Nahiz eta gaur egun erdigunean jartzen eta horretaz hitz egiten hasi garen, modu inkontziente batean jarraitzen dugu gure burua plazererako objektu bezala ikusten. Barne gatazka horretan sortzen da batez ere erruduntasuna, emakume ia guztietan transbertsala dena.

Zein da horrekin bukatu ahal izateko eman beharreko pausoa?

Horri buelta asko eman dizkiot, eta nik uste hasi garela dagoeneko pausoa ematen. Gaur egun elkarrizketa ezberdinetan, egoe-

ra ezberdinetan... hasi gara plazera erdigunean jartzen. Baina hasi gara hitzetatik bakarrik. Egia da alde kognitibo horretan hitz egiten eta pentsatzen dugun horretan, plazera erdigunean jartzen dugula; hau da, emakumezkoa badela plazerra merezi duen subjektu bat aldarrikatzen dugula. Baina, gero, hori gorputzean edo emozioetan ez da ikusten.

Ez dakit hurrengo urratsa den hitzetatik bizipenetara pasatzea, eta modu kolektibo batean hori lantzea, baina uste dut bide horretan oraindik ere oztopo eta zailtasun asko ditugula.

Eta zeintzuk dira oztopo eta zailtasun horiek?

Esate baterako, modu indibidual batean bizi garen heinean, lan kolektibo hori egiteko zailtasun handiak ditugu. Eta arazoa kolektiboa den heinean, erantzunak ere kolektiboa behar du izan. Bizipen horiek konpartitua izan behar da beste guztiekin batera.

Zer ekintzarekin eman behar-ko gure kolektiboan lantzeko tartea hartzeko?

Alde batetik, jarraitu behar dugu borrokan politikoa publiko horretan zaintza eta kolektibotasuna erdigunean jartzeko. Izan ere zaintzaren bitartez lortu dezakegu plazera, eta plazer horren elkarbanatzea. Beste alde batetik, taldeak sortuz. Talde horietan eztabaidetatik harago ekintzeta-rra joanez.

Heteropatriarkatuak guran dauka sekulako influentzia. Heteropatriarkatuak gu zeharkatzen gaitu, eta gu bizitzen gaitu. Orduan deseraikitze prozesu horretan, badago prozesu indibiduala eta kolektiboa. Eta deseraikitze horretan bizipena ere sartu beharra dago. Zelan? Ba ez da hain erraza.

Deseraikitzea aipatu duzu. Gaur eguneko sistemari aurre egiteko modu eraginkorrenetako bat da hausnartzea zelan zeharkatzen dituen gure buruak patriarkatuak. Nondik has daiteke kontzientzia hartze hori?

Nik uste has gaitetzkeela bakoitzak bizi dituen egoera desberdina konpartitzen; egoera horietan dauden elkarpuntua identifikatzen eta partekatzen.

Azken finean indibidualismotik ezin dugu ezer egin, nik ez dakidalako zer den edo zer ez den normala. Baina konpartitzerakoan ikus ditzaket zer nolako antzekotasunak dauden baten eta bestearen arteko bizipenen artean. Dena da kolektiboa.

elkarrizketa

Atzera eginda, aipatu duzu kristautasunak erro sakonak dituela gurean, baina elizaren influentziak behera egin du gizartearen.

Kristautasuna eta eliza desager-tzen ari direla dirudien arren, gizartearen kristautasunak jarraitzen du. Sortu dugun gizartearen oinarria dira historian zehar izan ditugun eragile desberdinek utzitako arrastoak. Kuestionamendutik egin behar zaio aurre horri, baina aldaketa politikoak behar dira, daukagun sistemak bermatzen duelako horren jarraipena.

Familia-nukloea bada horren arrastoa?

Arrasto hori alderdi askotan ikus daiteke, baina, noski, batez ere plazera eta erreproduzitze hori agertzen den alderdi guztietan. Esate baterako familia-nukleo horretan bilatzen da familia bat sortzea, seme-alabak izatea, familia heteronormatiboa izatea... Non geratzen da hor emakumeon plazera?

Nahiz eta emakumezkoa alderdi publikora atera den, oraindik alderdi pribatuko gauza guztiak bere

“Has gaitzke bakoitzak bizi dituen egoera desberdinak konpartitzen; egoera horietan dauden elkar puntuak identifikatzen eta partekatzen”

gain jartzen dira. Eta, gero eta gauza gehiago ditudan heinean, nire plazera bilatzeko denbora gutxiago izango dut. Hor berriro ere sartzen gara betiko gurpilean, non emakumeon plazera alde batera uzten den.

**Nondik dator familia-nukloea-
ren ereduak?**

XVIII. eta XIX. mendeetan puritanismoaren ideiak indar asko hartu zuen eta bertan zabaldu zen emakumezkoek ez zutela desira erotikorik. Kontrara, erlazio sexualak izateko motibazio ama izateko desiotik hori zetorrela. Modu batean edo bestean, hori erreproduzitzen jarraitzen dugu.

Gure inguruan ere baditugu aipatutakoak erreproduzitzen duten lagun eta bikote asko.

Ez hori bakarrik, monogamiaren inguruan mugitzen den oro indartu egiten da ere. Ulertzen dugu beste pertsona batekin bakarrik egon gaitzkeela. Nik ez dut uste gizakia monogamoia denik bere osotasunean. Plazera mugatzen ari gara pertsona bakar batengan.

“Gaiaren inguruan hitz egiten dugun arren, esaten dugunaren eta barruan sentitzen dugunaren artean diskrepantzia handia dago”

Monogamian ez da kontuan izaten plazera eta desira guzti hori; are gehiago, seinalatu eta estigmatizatu egiten da. Oztopo bat bestearen atzean ari gara jartzen. Monogamia inposatua da. Bikote ez den beste pertsona bat erakargarri ikusten dugun momentuan sortzen diren erruduntasun eta zeozer gaizki egiten ari garenen sentimenduek badute zerikusia.

Lagunekin izan dut eztabaida hori, askok kontrakoa ere adierazi didate.

Gaiaren inguruan hitz egiten dugun arren, esaten dugunaren eta barruan sentitzen dugunaren artean diskrepantzia handia dago. Erlazio ez-monogamoen alde gaudela, baina askotan lagunekin hitz egitean aurretiaz aipatutakoaren arrasto guztiak horiek agertzen dira.

Harremanen erdigunean zaintza eta komunikazioa jarri behar dugu.

Gainera, beste norbait zaintzeko lehenik eta behin nire burua zaindu behar dut. Ni ondo ez nagoen bitartean bestea nola zainduko dut.



herriz herri

Artziniega

Kalean bizi diren pertsonentzako lo-zaku, manta, esterilla eta motxilak bilduko dituzte



Kalean lo egiten duten pertsonen laguntzea izango da ekimenaren xedea. **Jorge Paris - Argia**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lo-zaku, manta, esterilla eta motxila bilketa egingo dute abenduan zehar Artziniegako udaletxean. Udalak sustatu du egitasmoa, Otsati eta Izangai elkarteekin batera.

Bilbon jarduten duen irabazi asmorik gabeko taldea da Izangai, eta bazterketa egoeran edo horren arriskupean dauden pertsonen laguntzea du helburu. Hainbat proiektu eta azpiegitura ditu horretarako: bi eguneko zentro, lan formazio-

Bilbon jarduten duen Izangai elkarteari emango diote biltzen duten material guztia

rako lantegi bat, babespeko etxebizitza batzuk edota oinarrizko beharrianak asetzeko proiektu bat.

Baina, baliabide guzti horiek izan arren, elkarteak ez du gaitasunik bere jardueretan parte hartzen duten pertsona guztien oinarrizko beharrianak asetzeko. "Une honetan horietako asko kalean lo egiten ari dira, ez dutelako tokirik udal aterpeetan", jakinarazi dute bilketaren antolatzaileek. Horregatik egingo dute Artziniegako ekimena, pertsona horiek "ahalik eta hotz gutxien" igaro dezaten neguan zehar.

Arrankudiaga-Zollo

"Hau ez da normala, hau gerra bat da"



63 emakumek hartu zuten parte ekimenean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ekintza berezia antolatu zuten Arrankudiaga eta Zolloko Emakume Sareko kideek Azaroaren 25aren testuinguruan. Biolentzia matxistaren kontrako *Women in black* performancea egin zuten

Arrankudiagako plazan. 63 emakumek hartu zuten parte ekimenean. Plazako zoruan etzan ziren, beltzez jantzita, isilik, beste kide batzuek euren siluetak klarionaz marrazten zituzten bitartean. Modu horretan, gogora ekarri nahi izan dituzte Euskal Herrian azken urteetan eraildako emakumeak.

**25 EKITALDI
8 EGONALDI
4 BEKA
ARTE HARTZE ZIKLOA
ANTZERKI ESKOLA
BITARTEKARITZAK
NAZIOARTEKO
LANKIDETZAK**

anesteko faktoria

Zorionak eta eskerrik asko sortzaile eta kulturazale guztioi!

Urte berrian, gehiago eta ederrago.



KULTURA

SORMEN
FAKTORIA

Errotari kalea, 4-8 pabilloia, Laudio · kultura@aiaraldea.eus
633 517 383 · [@kultur.faktoria](https://www.kultur.faktoria)

ARCADE 1UP **ARCADE MAKINAK ETA AULKIAK**

Zure etxerako zein txokorako paregabeak!
AUKERAN 11 BERTSIDO

2 urteetako bermea.
Makinetan ezin da txanponik sartu.

675€

675€

INFO+ 661 24 29 71

Europako saltzaile ofiziala.

Amurrio

“Urteurrenean parte hartzeko gonbita luzatu nahi diogu Gaztetxetik pasa den jende orori”

Urtarrilaren 20an ospatuko dute urteurrena. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Gazte Asanbladak hamar urte beteko ditu 2024an eta urtarrilaren 20an bertan ekingo diote efemeri-dea ospatzeari. Horrela, Gaztetxean bertan hasiko dira ekintzak 11:30ean Kirikinok prestatuko dituen umeentzako jolasekin. 20:00etan argazki erakusketa inauguratuko dute Peru Selektak DJak musika jartzen duen bitartean. 21:00etan, aldiz, parrilladaren ordua helduko da eta 22:00etan ekitaldia eta kontzertuen txanda izango da.

Hain zuzen, Brigade Loco, Streetwise, Cuatro Bancos, DJ Truetox eta Ona eta Guda taldeak eta DJak arituko dira.

Amurrioko gazteria eta asan-

bladan egondako kide guztiak gonbidatu dituzte jaietan parte hartzera, eta Galder Barbado Bonilla ere gogoratu dute. Euskal Preso Politikoen Kolektiboan dagoen amurriarra gazte asanbladako sortzaileen artean egon zen eta.

Gaztetxeak 10 urte

2014an aurkeztu zuen Amurrioko Gazte Asanbladak San Jose auzoko kultur etxean Gaztetxea atontzeko proiektua, aurreko urteetan hainbat mobilizazio eta okupazio saiakerara egin ostean. Orduetik hona bertan garatu da gune autogestionatua, beste elkarte batzuekin elkarbizitzan, eta hainbat proiektu garatu dituzte lau pareten artean, entsegu, argazkilaritza edo ikasketa gelak kasu.

Amurrioko ur horniketako hodiak berritzeko ia 4 milioi euroko lanak esleitu ditu Aldundiak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako Foru Aldundiak gaur onartu du Yárritu SA enpresari ematea 3.844.905,67 euroko obra —BEZ barne—. Hamabi hilabete iraungo dute lan horiek.

Berez, 2016-2026 aldirako Arabako Hornidura eta Saneamendu Plan Zuzentzailean jasotako esku hartzearen bigarren fasea da obra. Lehenengoan Askargango

gaina eta Izoriako ur horniketarako azpiegitura lotzeko hodi berritjarri ziren. Bigarren fasean, aldiz, Izorian jarritako hodi hori Askargango gainetik iristen den sarera konektatuko da. Horrela, bildutako urak Aiarako tratamendu estazioan prozesatu ahal izango dira, eta eskualdeko beste gune batzuk hornituko dituzte, Laudio barne.

10 kilometroko ibilbidea lotu beharko du obrak eta fibrozemen-

tuko hoditeria ordezkatuko dute horretarako. Horrez gain, beste ibilbide bat sortu beharko dute, orografia dela eta. Gauzak horrela, lanek eragina izango dute A-2522 eta A-3616 errepideetan eta Altube eta Berganza ibaietan.

Esku hartzea baliatuko dute uraren bi hodi Lezamarantz eta Bergantza-Berganzagoitiko biltzera bideratzeko. Altube ibaiko ponpaketa estazioa berritzeko lanak ere egingo dituzte.

Aiarako Gabonetako AGENDA



Aiarako Udalak

Abenduak 14

11:00 Soloitza gaztandegira bisita *Izen-ematea Udal bulegoetan (5€)*

Abenduak 15

18:00 Bola jokoa *Kexaa*

Abenduak 16

11:00 Gabonetako marrazkien lehiaketa, 15 urtetik azpiko gazteentzat *Lantenoko Eskolak*

17:00 Piñata tailerra *Zuhatzako txokoa*

18:00 Bola jokoa *Kexaa*

Abenduak 17

11:00 Bola jokoa *Kexaa*

17:00 Igande Arratsaldeak **Familian:** Eskulan tailer berezia *Luiaondoko Otueta Gizarte Etxea*

Abenduak 22

18:00 Bola jokoa *Kexaa*

18:30 *El ladrón otra vez*, Aimara taldearen antzezlan *Udala*

Abenduak 23

11:00 Bola jokoa *Kexaa*

Abenduak 24

11:00 Bola jokoa *Kexaa*

Abenduak 26

10:00 Gaztegabonak: *KNS Basauri*

17:00 Igande Arratsaldeak **familian:** Gabonetako Lehiaketako Sariak eta ikuskizuna *Luiaondoko Otueta Gizarte Etxea*

Abenduak 27

10:00 Gaztegabonak: *Athletic Club Museoa*

17:00 Haurrentzako jai mexikarra *Zuhatzako Txokoa*

Abenduak 28

10:00 Gaztegabonak: *Sodupe Escape Room*

Urtarrilak 2

10:00 Gaztegabonak: *Sukaldaritza tailerra*

Urtarrilak 3

10:00 Gaztegabonak: *Izotz pista Bilbon*

Urtarrilak 4

10:00 Gaztegabonak: *Eskulan tailerra*

Urtarrilak 5

10:00 Gaztegabonak: *Escape Room Bilbo*

17:30 Murgako Jaiak: *Disko Festa, Errege Magoen bisita eta txokolatejana*

17:30 *Disko festa Arespalditzako Soziala*

Urtarrilak 6

Errege Magoak *Zuhatza*

Urtarrilak 7, 12 eta 13

Izoriako jaiak

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

herriz herri

Aiara

Osakidetzak ez du onartu Aiarako Udalaren proposamena, Gurutzeta berriro izan dadin herritar ororen erreferentziazko ospitalea



Mobilizazioak egin dituzte Aiarako bizilagunek Gurutzeta erreferentziazko ospitalea izan dadin eskatzeko. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako 170 lagun inguruk Usansoloko ospitalea erabili behar dute oraindik ere, Gurutzetako baliatu ordez, lehen bezala. Hori konpontzeko, Aiarako Udala berriro elkartu da Osakidetzarekin.

Osasun publikoko arduradunek mahai gainean jarri dute 170 herritar horientzako autobus zerbitzua eskaintzea, Usansoloko ospitalera joateko.

Edonola ere, Aiarako Udalaren ustez, hori ez da bideragarria. "Nola jarriko dute abian 170 aiarrarentzako zerbitzua, batzuk Añeseoak eta beste batzuk Lantenoak direnean?", aipatu diote tokiko erakundeko ordezkariak Aiaraldea Komunikabideari.

Horren ordez, Udalak eskatu du aiarar ororen erreferentziazko ospitalea Gurutzetako izatea berriro, askoz irisgarriagoa baita.

Dena den, Osakidetzak ohartarazi dio tokiko erakundeari Gu-

Osakidetzaren proposamena da autobus zerbitzua eskaintzea Aiarako herritarrek Usansoloko ospitalera jo dezaten, baina Udalak uste du hori ez dela bideragarria

rutzetako ospitalera itzultzeak arriskuan jar dezakela Aiaran ezarri zuten hirugarren medikua.

Aipatu beharra dago hirugarren medikua jartzeko erabakiak hautsakharrotu zituela medikuen artean eta Udalak harridura adierazi du Osakidetzak esandakoagatik: "Lehen aldia da entzuten dugula Aiaran hirugarren medikua izatea eta Usansoloko ospitalearen afera lotuta daudela".

Mobilizazioak aurtan

Osakidetzan egindako zenbait berregituraketen ondorioz, erreferentziazko ospitalea aldatu zen Añes, Lexartxu, Kostera, Erbi, Lanteno eta Erretes Lanteko administrazio batzarretako bizilagunentzako, Ezkerraldeko OSian sartu baitzituzten.

Erabakiak amorruta piztu zuen hainbat aiarraren artean eta kontzentrazioak egin zituzten orduan, salatzeke kalitatezko osasun arreta ezinezkoa dela irisgarritasuna bermatuta ez dagoenean.

Eukaliptoaren landaketa gelditzea eskatu du Udalak



Okupatzen duen azalera hamairu aldiz biderkatu du eukaliptoak. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiarako udalbatzak mozioa onartu zuen azaroko udal osoko bilkuran, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko bertan behera uztea eukalipto landaketak. Zehazki, tokiko erakundeak eskatu dio Aldundiari espezie horren erabilera arautzea eta mugatzea.

Izan ere, "Aiarako kasuan, eukaliptoak azken hamar urteotan okupatutako azalera hamairu aldiz biderkatu da, 523 hektareara iritsiz. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Aranzadi elkarteak egin dako txosten baten arabera, eukaliptoaren sail handiek biodibertsitatearen galera larria ekartzen dute mendien malda handiengatik higadura prozesua larriak eta errekaetako eta ibaiadarrak lehorteak ekartzen dutelako", adierazi dute.

Hain zuzen, EH Bilduk eta Aiara Batuzek aipatu dute, pinuen gaixotasuna dela eta, baso-jabetza kontzentratzen duten inbertitzaileek eukaliptoaren aldeko apustua egin dutela, itzulera ekono-

miko azkarrak lortzeko. Horrela, Aiarako Udalak iradoki dio Arabako Foru Aldundiari inguruko adibideak jarraitzea: "Bizkaiak 2026ra arte landatzea debekatu du eta Gipuzkoan baso-espezie guztiak moztea debekatu da, landatzen direnetik 25 urte igaro arte".

EAJren abstentzioa

EH Bilduk eta Aiara Batuzek alde bozkatu bazuten ere, EAJk nahiago izan zuen abstenitzea bi arrazoiengatik. Hala azaldu du Gentza Alamillo bozeramaile jeltzaleak: "Alde batetik, gai hau jorratzen ari dira orain Aldundian, eta uste dugu lan hori errespetatu behar dugula. Bestetik, aurreko legealdian bi taldeek mozio bera aurkeztu zuten, baina Udalari exijituta eukaliptoaren landaketa etetea, eredugarriak izateko. Aurreko legealdian esan genien tokiko erakundeak ez duela eskumenik hori arautzeko, eta ez dugu ulertzen orain, euren kudeatzen dutenean tokiko erakundeak, mozio bera proposatzea Arabako Foru Aldundiari begira".

Laudio

“Glavista itxiz gero, Aiaraldean egongo den enplegu suntsiketaren lehen pieza izango da”



Prentsaurreko bateratua eskaini dute Autoglas-Glavista eta Guardian enpresetako langileek. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ez dago albiste berririk Autoglas-Glavistaren itxiera prozesuaren aferan. Hala jakinarazi dute enpresa horretako beharginak eta Guardian lantegikoek gaur eguerdian elkarrekin eskaintako prentsaurrekoan. “Urtebete baino gehiago igaro da ametsgaizto hau hasi zenetik, urtebete baino gehiago darabagu iristen ez diren soluzioen zain”, salatu dute bi enpresetako beharginak.

Behin baino gehiagotan azalduko jarri dute beharginak berriro mahai gainean: bada goela Autoglas-Glavistan interesa duen inbertsore bat, badagoela jarraipenerako proiektu bat, baina ez dagoela interesik Guardianen partetik egoera desbloketatzeko. “Duela hilabete bat ja-

kinarazi zitzaigun Guardian eta Amineren (balizko eroslearen) artean elkarrizketak berrabiarazi zirela, lursailen aferarekiko zeuden desadostasunak konpontzeko. Eta duela hilabete batetik gabiltza beste inolako albisterik izan gabe”. Horregatik, langileek uste dute Guardianen estrategia bat izan dela, “denbora galtzeko” bere “anabasa judiziala” konpontzen saiatzen den bitartean. “Denbora igarotzen utzi nahi dute, Glavistako 200 langileen kontratuak iraungi arte”.

Gauzak hala, “negoziatzera esertzea” exijitu diote multinazionalari, “berak sortu duen gatazka konpontzeko beharrekobaliabideak jarritz”. Langileen aburuz, Autoglas-Glavistaz gain, Guardianen Laudio lantegia ere dago joko: “Ez dugu lantegi horietarako proiektu seriorik ikusten, eta erakundeek

beraiek ohartarazi digute multinazionalak interes falta duela inbertsioen bidezko bermeak ezartzeko”.

“Domino baten lehen pieza”

Beharginen aburuz, gertatzen ari dena, “enpresa arazo bat” baino, “espekulazio arazo” bat da, “enpresa-iruzur arazo bat da, eta eskualdearen desindustrializazioarena ere bai”. Ohartarazi dutenez, beiraren sektorea suntsitzen ari dira.

Gauzak hala, “berehala” jardutea exijitu diete erakunde publikoei, “multinazional hauei boterea kentzeko”, eta aurreikuspen oso ezkor bat jarri dute mahai gainean: “Autoglas-Glavista ixten bada, Aiaraldeko eta Arabako enplegu susnitsiketaren dominoaren lehen pieza baino ez da izango, eta hori ezin da onartu”.

Auto bat harrapatuta geratu da Lamuza Parkean



Zubian trabatuta geratu da autoa. **Tere Olabarria**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Astelehenean auto bat harrapatuta geratu zen Lamuza Parkeko sarreretako batean, zehazki, Ugarte auzunuean dagoen zubi txikian. Udaltzaingoak Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez, gidariak GPSaren azalpenak jarraitu zituen eta autoa zintzilik ge-

ratu zen zubiaren eta eskaileren artean, aurreko gurgilak ez baitziren zorura heltzen. Hori dela eta, garabi batek atera behar izan zuen, ibilgailuak ezin baitzuen ez atzera ez aurrera egin.

Kasulitatea edo ez, azaroaren 28an egoera berean topatu zuen bere burua beste gidari batek, parkearen kokapen berean eta arrazoi beragatik.

Gabonak URDUÑA 2023

Abenduak 20, asteazkena

17:00 ERRETIRATUEN KLUBEAN SUKALDARITZA tailerra
Marta Franciscoren eskutik

Abenduak 21, osteguna

17:00 ALONDEGIAN Magia ikuskizuna (Peio Rivas) eta Gabonetako Marrazki Lehiaketa sarrien entrega

Abenduak 22, osteguna

10:00 ERRETIRATUEN KLUBEAN ZUMBA
19:00 FAMILIA SAKRATUAN Gabonetako KONZERTUA (Santa Cecilia banda eta Urduñako Musika Eskola)

19:00 ERRETIRATUEN KLUBEAN

BINGO berezia
19:30 FORU PLAZAN Herriko ODOLOSTE jana eta buruhandiak

Abenduak 24, igandea

11:00 - 13:00 KALEJIRA
16:30 PILOTALEKUAN MARI DOMINGIRI ETA OLENTZERORI HARRERA ETA KALEJIRA

Abenduak 26, asteartea

11:00 ALONDEGIAN Haurrentzako GALLETAK EGITEKO TAILERRA

Abenduak 27, asteazkena

11:00 ALONDEGIAN Txiki txef tailerra: KREPAK EGITEA
11:30 - 13:00 PILOTALEKUAN SASKIBALOA denontzat (A.D. Bedarbidek antolatuta)
17:00 PILOTALEKUAN SANTI ZUBI XII.MEMORIALA saskibalo partiduak

Abenduak 28, osteguna

11:00 ALONDEGIAN Haurrentzako ROBOT TAILERRA
11:30 - 13:00 PILOTALEKUAN SASKIBALOA denontzat (A.D. Bedarbidek antolatuta)
17:00 PILOTALEKUAN SANTI ZUBI XII.MEMORIALA saskibalo partiduak

Abenduak 29, ostirala

11:30 - 13:00 PILOTALEKUAN SASKIBALOA denontzat (A.D. Bedarbidek antolatuta)

18:30 PILOTALEKUAN SANTI ZUBI XII.MEMORIALA saskibalo partiduak

19:00 FAMILIA SANTUAREN ELIZAN Urduñes herri kantutegia

Abenduak 30, larunbata

18:00 BOLATOKIAN Gabonetako BOLO LEHIAKETA

19:00 UDAL FRONTOIAN Gabonetako BERTSO-SAIOA

19:00 JUBILATUEN GIZARTE ZENTROAN DANTZA (Urduña Baila elkarteak girota)

FORU PLAZAN, URTE ZAHAR GAU AURRERATUA:

19:00 Dantzatu Gurekin

20:30 Gabonetako Bingoa

21:00 Dj Festa

23:30 Kanpaien ikuskizuna

00:00 DJ Oihan Vega

Abenduak 31, igandea

9:30 FORU PLAZAN Txarrazora MENDI IRTEERA

11:00 - 13:00 BOLATOKIAN Gabonetako BOLO LEHIAKETA

18:00 FORU PLAZAN SAN SILVESTE herri lasterketa

Urtarrilak 2, 3 eta 4

11:30 - 14:00 ETA

16:30 - 20:00 FRONTOIAN GABONETAKO JOLAS PARKEA

Urtarrilak 4, osteguna

12:00 FORU PLAZAN Errege postaria

Urtarrilak 5, ostirala

18:00 ZEZEN PLAZAN ERREGE MAGOEN DESFILEA

19:00 JUBILATUEN GIZARTE ZENTROAN BINGO berezia

Urtarrilak 7, igandea

17:00 ALONDEGIAN Haurrentzako PELIKULA

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa



Gurekin
ere, euskeraz!

herriz herri

Aiaraldea

Abenduaren 11n egin zen hiru gazteen aurkako epaiketa. Bi gazte absolbitu dituzte eta hirugarrenak urtebeteko kartzela zigorra onartu du, hutsik zegoen lata bat botatzeagatik. 4 urte eta 7 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen zuen fiskaltzak gazte bakoitzarentzat.

Kartzelan sartzeko arriskutik kanpo daude Tubacexeko gazte auziperatuak



Irailean egingo zuten hiru gazteen aurkako epaiketa, baina hiru hilabetez atzeratu da azkenean. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Astelehenean izan zen Tubacexeko greba mugagabetikerorritako laugarren eta azken epaiketa. Irailean izango zen berez, baina atzeratu behar izan zuten azkenean, bi ertzain ez zirelako bertaratu "administrazio hutsegite bategatik".

Abenduaren 11n, aldiz, polizia guztiak agertu ziren Gasteizko Justizia Jauregian, hamalau gutzira, baina ez zuten guztiak deklaratu. Izan ere, ertzainetako batzukez ziren 2021eko martxoaren 2021an Saratxoko Tubacexeko piketearen egon. Aurreko gauetan bertaratu ziren, langileek bidean jarritako paleak kentzera. Gauzak hala, agente-talde horretako kide bakar baten deklarazioa sartu zuten epaiketan.

Gainontzeko poliziek, aldiz, ez zuten bertsio bateratu bat plaza-ratu Tubacexeko piketearen gertatutakoaren inguruan. Batzuk deklaratu zuten ez zutela ezer ikusi, eta ez zuten pertsona zehatzik identifikatu. Beste batzuek, aldiz, gazteen aurkako akusazioak mantendu zituzten.

Bi poliziek deklaratu zuten gazteetako batek objektuak bota zituela euren aurka. Gauzak hala, auziperatu horren aurkako kartzela zigorra mantendu zuen fiskalak, baina eskaera murriztu zuen. 18 hilabeteko bi kartzela zigor eskaera egin zizkieten, desordena publikoak eta agintaritzaren aurkako atentatua leporatu. Abenduaren 13an jasotako sententziak, ordea, kargu guztietatik absolbitu du gaztea azkenean.

Bigarren gaztea ere absolbitu egin zuten, epaiketa egunean

bertan. Barrikadari gasolina botatzea leporatu zion akusazioak, baina epaiketan argi geratu zen hori egin ez zuena beste pertsona bati zela (irudietan identifikatu ezin izan dutena). Ondorioz, karguak erretiratu zizkieten auziperatuari.

Hirugarren gazteak, aldiz, urtebeteko kartzela zigorra onartu zuen, hutsik zegoen freskagarriri lata bat botatzeagatik. Akusatuak baieztatu zuen lata bota zuela, baina gaineratu zuen lurrera erori zela, inori jo gabe. Bere aurka deklaratu zuten poliziek ere onartu zuten latak ez zuela inorjo.

Aiaraldea Komunikabideko kide bat egon zen epaitegian, defentsak deituta deklaratu behar zuelako. Baina, azkenean, epaiketak hartu zuen norabidea ikusita, ez zuten beharrezko ikusi kartzetariaren deklarazioa sartzea.

Barrikadara gasolina botatzea leporatzen zioten gazteetako bati, baina epaiketan argi geratu da beste pertsona bat zela hori egin zuena eta, ondorioz, karguak kendu dizkiote

Aiaraldea Komunikabideko bi langile egon ziren 2021ko martxoaren 25ean Saratxoko poligoan, Tubacexeko piketearen gertatzen ari zena bertatik bertara kontatzen.

4 urte eta 7 urteko kartzela zigor eskaerarekin sartu ziren hiru gazteak Gasteizko epaitegietan. Eurak izan dira Tubacexeko greba mugagabeagatik zigor eskaera handienak jaso dituzten pertsonak. Guztira, zazpi pertsona egon dira auziperatuta 236 egunez luzatu zen lan-gatazkaren ondorioz. Lehena (Aintzane Mendia amurriarra) absolbitu egin zuten. Bigarrenari eta hirugarrenari sei hilabeteko espetxe zigorrak ezarri zizkieten, baina biek jarri dute helegitea. Laugarrenak, aldiz, akordioa lortu zuen, lau hilabeteko kartzela zigorra eta 4.980 euroko isuna onartuta.

babestutako edukia

Azken bi urteetan Loteria Nazionaleko sari inportanteak banatu dituzte Laudioko El Crucero loteria administrazioan. Azkena duela bi aste, milioi bat euroko saria egokitu zitzaion establezimenduko bezero bakar bati. Orain Gabonetako kanpainan murgilduta daudela sari potoloa banatzea espero dute.

“Gabonetako sari potoloa banatzeko irrikaz gaude”



Gabonetako kanpainan buru-belarri murgilduta daude El Crucero loteria administrazioan. Aiaraldea.eus

Duela hamaika urte ekin zioten El Crucero loteria administrazioa kudeatzeari Jon Iñaki Mateosek eta Ruben De Barriok. Bi kideek negozio eta lanpostu aukera ona ikusi zuten, eta gogotsu hasi ziren administrazioan lanean.

2022an Loteria Nazionaleko larunbateko zozketako sari nagusia banatu zuten. 60.000 euro banatu zuten saldutako loteria txartel bakoitzeko, hirurogeita bost txartel guztira. Bigarren sari bat ere banatu zuten. Zortea

haien alde dute oraindik ere, eta duela bi aste milioi bat euroko saria banatu zioten irabazle bakarriari Euromillones zozketan.

Sari txikiagoak ere banatu dituzte administrazioaren kudeaketan egon diren urte hauetan guztietan: “7.000 eta 10.000 euroko sari ugari banatu ditugu ere”. Adibide bat jartzearen, iaz bost milioi euro baino gehiago banatu zituzten sarietan.

Loteriara jolasteko ohiturak berdin mantendu direla aitortu dute bi kideek. Nagusiki per-

“Nahiko sari garrantzitsu banatu ditugu azken aldian eta horrek bezeroak animatu egiten ditu”

tsona nagusiak dira asterokotazunean loteria erosten dutenak, baina badoaz gazteak animatuz gutxika.

Gabonetako loteria

Gabonetako loteriaren zozketaren kanpainan daude murgilduta burubelarri. Urteko sasoi honetan beti handitzen da bezero kopurua eta lan karga. Laudioko enpresa askotako loteria zenbakiak kudeatzen dituzte El Crucero administrazioetik. “Jendea pozik etortzen da loteria

erostera, ikusi dute sari garrantzitsuak banatu ditugula azken aldian eta horrek bezeroak animatu egiten ditu”. “Gabonetako sari potoloa banatzeko desiatzen gaude”, azpimarratu dute Mateosek eta De Barriok. “Sari inportanteak banatu ditugu, baina Gabonetakoa falta zaigu”. Ilusio berezia egiten die Gabonetako sariak, eta xanpaina hozten jarri dute honezkerok: “Aukera asko dago saria jende askori egokitzeko. Hori da nahi duguna, herrian ilusioa piztea”.



Virgen del Carmen 1, Laudio
94 672 00 97

@elcruceroloterias



herriz herri

Aiaraldea

Aurreikusitakoa baino %20 gutxiago bildu dute Arabako Txakolinaren mahatsaren uzta



Aurreikusi baino txakolin gutxiago ekoizteko aukera emango du uzta. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako Txakolina izendapenak uzta "oso etsigarria" jaso du aurten. Berez, espero zuten iazko markara ez heltzea, inoiz izandako onena izan baitzen, baina aurreikuspenak baino nabarmen okerragoa izan da emaitza eta 2017ko datuetan geratu dira.

Berez, elkarrekin espero zuen, gutxienez, 500.000 kilo mahats biltzea, baina kopurua 394.400 kilotan geratu da, espero zutena baino %20 gutxiago.

Jatorrizko izendapena zaintzen duen elkarrekin azaldu du oso urte zaila izan dela, ohi baino batez besteko tenperatura altuagoekin. Berez, hotz eta hezetasun oso altuak egon ziren urtarrilean, izotza otsailean eta gero udaberri irregularra heldu zen tenperatura altuekin, oso lehorra; eta normalean baino euri gutxiago egin bazuen ere, izurrite endemikoak agertu dira, hala nola mildiua edo oidioa.

Gauzak horrela, udaberriaren eta udaren irregulartasunak eragin handia izan du uzta, euri-ja-

sak, izozteak eta txingorra agertu baitira, baita bero handiko egunak ere, tenperatura leunekin tarteak, mahastien kopuru handiareragin diotenak.

Alde positiboa, kalitatea

Arabako Txakolinarentzako albiste ona izan da uzta kalitatea handia izan dela. Horri gehitu behar zaio iazko uzta, kopuruaren zein kalitatearen aldetik, bikaina izan zela eta oraindik ardo nahikoa dagoela 2024. urteari aurre egiteko, aurtengo ardoa saldu baino lehen.

Energia Berriztagarrien Sektore Planari egindako helegiteen erantzunak argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzak



Hogei azpiegitura baino gehiago eraiki nahi dituzte. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Eusko Jaurlaritzak hainbat Administrazio Batzarretan harrotu zituen hautsak Energia Berriztagarrien Sektore Planaren hasierako onarpena bultzatuta, eta hainbat helegite aurkeztu ziren horren ondorioz.

Herritarrei zein erakundeiei helegite horien erantzunak heldu ez zaizkien arren, Eusko Jaurlaritzak hainbat errekurtsoren erantzunak argitaratu ditu dagoeneko.

Berez, plan horrek hogei proiektu eoliko eta fotovoltaiko handi baino gehiago jasotzen ditu eskualdean eta gehiagori ere irekitzen die atea. Horrek ekarriko luke hainbat jabetza pribatu-

turen zein lursail komunen desjabetzea eta egitasmoak alarmak piztu zituen hainbat herritarren artean.

Hain zuzen, Aiaraldeko zenbait erakunderen, alderdiren eta herritarren helegiteak topatu daitezke Eusko Jaurlaritzak plazaratutako dokumentuaren aurkibidean eta, banan banan aztertu behar diren arren, ondorioztatu daitezke askotan irizpide bera erabili duela Eusko Jaurlaritzak: alegazioa sakontasunean ez aztertzea eta erantzutea argudio horiek hobeto aztertu beharko direla proiektuaren zehaztasunak argitzen direnean, enpresek ez baitute zertan okupatu eman-go zaizkien lurraldeen zabalera guztia.



UMEEN GABONETAKO PARKEA

ABENDUAK 16/
URTARRILAK 7

Dibertsioa Balioekin



EROSI ZURE SARRERAK ONLINE

BILBAO EXHIBITION CENTRE

EXPOSSIBLE!

babestutako edukia

Italian, Bartzelonan, Valentzian edota Madrilen odontologo lanetan aritu da Jose Walter Morales Delgadillo doktorea. Pandemia garaian hartu zuen Orozkoko klinikaren ardura, eta azken urteetan hainbat teknika berritzaile ugari inplementatu dituzte pazienteen ongizatea hobetzeko helburuarekin, ezagutza eta hobekuntza teknologikoa uztartuz.

“Laserraren teknikari esker pazienteek beldur gutxiago diete ebakuntzei”



Clínica Dental Orozkon hainbat teknika berritzaile inplementatu ditu Jose Walter Moralesek. Aiaraldea.eus

Zein da gaur egun klinikaren indargunea?

Gure indargunea laser-dio-doarean erabilera da. Teknika hori baliatzen ari gara gure ebakuntzetan. Jendeak normalean beldur handia die ebakuntza odontologikoei, eta gure prozedura berritzailearen bidez segurtasuna eskaintzen diegu pazienteei eta haien pertzepzioa asko aldatzen da.

Nola aldatzen da pertzepzio hori?

Teknika tradizionalak beti

utziko dute mina edota hantura, kasurik okerrenetan ere aurpegia berde jar dakioke. Normalean beste paziente askoren kontuak entzunda etortzen dira klinikara, pazientearen beldurra areagotuz.

Guk ebakuntza aurretik laserra baliatzen dugu, lan egingo dugun zonaldeko ehunen bio-estimulazioa egiteko. Horri esker bi efektu lortzen ditugu: antinflamatariora eta antibiotikoa.

Horren emaitza adierazgarrienak ebakuntza ostean ikus daitezke. Adibide bat

“Arreta berezia jartzen diot protesi-odontologiko lanak ahalik eta modu egokienean egikaritzeari”

jartzearen azeknaginak edo atzeko 3. hagina kendu zaizkien pazienteek 15-20 eguneko errekupeazioa behar izaten dute.

Laserra aplikatu den kasuetan epe hori 3 egunera murriztu dezakegu.

Zenbat denbora daramazue hori aplikatzen?

Urtebete daramagu hau aplikatzen. Oso emaitza onak lortu ditugu. Horrek gaiaren inguruan gehiago ikastera animatu nau. Graduondo bat nago ikasten.

Protesiekin ere asko lan egiten duzue.

Bai, eta ni neu arduratzen naiz lan horiek ikuskatzeaz. Izan ere, protesista ere banaiz. Arreta berezia jartzen diot lan hauek ahalik eta modu egokienean egikaritzeari.

Beste teknika berritzaileren bat duzue?

Orain 3D eskaner panoramiko bat dugu. Ebakuntzak egin aurretik beharrezko parametro guztiak zehetasunez eskaintzen dizkit. Eskaner intraoral ere badugu.

Lehendakari Agirre enparantza
8 behea, Orozko

94 661 04 19 / 688 678 604
@clinicadentalorozko

CLÍNICA DENTAL OROZKO



elkarrizketa



LANDER SAIZ (Okondo, 1998) GAZTEAK *LOS HEREDEROS DEL CAOS* ELEBERRIA ARGITARATU ZUEN URRIAN ETA **DAVID ESPERILLA**ren (Laudio, 2002) LAGUNTZA IZAN DU, BESTEAK BESTE.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Los herederos del caos eleberria argitaratu duzu, zeri buruzkoa da?

Ainara editoreak eskatu dit ez esateko *sekta* hitza, baina ezinezkoa zait azaltzea bestela. Printzipioz, protagonista sekta baten barruan jaio eta hazi da eta talde horrek azaldu dio mundua modu batean, balio batzuekin, baina erritu baten ostean, beste leku batera eta bakarrik bizitzera joaten denean, konturatzen da mundua ez dela esan zioten moduan, baina oso berandu da berarentzat.

Nola bururatu zitzaizun ideia?

Ikasbidaian apustua egin nuen. Ez banuen metro bat txupito edaten, neska batekin ligatzera joan

behar nuen, eta hori oso txarto egiten dut. Aurretik irakurri nion musikari edo antzezle bati jarraitzaileen aurrean pertsonaia baten rola hartzen zuela, alter ego modukoa, eta pentsatu nuen nik ere egin behar nuela.

Horri lotuta, pentsatu nuen, beti izan baitut gogoko idaztea eta irakurtzea, nolakoa litzatekeen nire alter ego hori.

Horrela sortu nuen istorioa, pertsonaia baten inguruan. Urteekin joan naiz garatzen eta idazten. Bederatzi urteren ostean, hemen dago.

Asko aldatu da liburua tarte horretan?

Bereziki, hiria. Arkaitzen aholkuak jaso nituen. Liburuan eskerrak eman dizkiot. Bera energia berriztagarrien ingeniaria da eta berak lagundu zidan imajinatzen hiri autoaskia energiaren aldetik.

Horrek sakontasuna eman dio istorioari. Beste aldaketa bat izan da pertsonaia berri asko sartu ditudala, hamabi inguru. Hurrengo liburuan ere egongo dira. Nire aburuz, pertsonaiak oso lauak dira, baina editoreek eta irakurleek ziurtatu didate ezetz, nik ez dudala ikusten badutela sakontasuna eta ondo eraikita daudela. Denak ildo bat jarraitu du.

David Esperilla: Pertsonaiei buruz azalpen gehiegi eman gabe, nik gogoko ditut batzuk eta grazia egiten didate. Hurrengo liburuan irakurri nahi dut gehiago. Beste batzuen kasuetan, aldiz, gorrototatzea lortzen du Landerrek, eta uste dut hori oso ondo dagoela, aldi berean ulertzen baituzu zergatik bihurtu den pertsonaia maltzurra.

Bigarren parte dauka orduan liburuak?

Bai, lehen bi atalak idaztean istorioaren plana

elkarrizketa

“Bederatzi urte baliatu ditut eleberria idazteko”

baina beste askok ez, eta utzi nion idazteari. Baina orain lehen zatia idatzi dudala eta, antza, jende asko dagoela bigarrenaren zain, azkarrago egingo dut bigarren zatia eta lasaitasunez, baita plazer gehiagorekin.

Jende hori nola agertu da?

Jende gehiena nire lagunen girotik kanpo agertu da behin argitaratuta. Tik Tok kontua egin nuen honi buruz hitz egiteko eta 1.500 jarraitzaile ditut. Horietako batzuk idatzi didate esateko oso gogoko dutela liburua. Esan didate idazteko modu hurbila dudala, erraza dela irakurtzeko eta jakin-mina sortzen duela. Ahalegina egin beharko dut.

“Orain irakurleen interesa dudala, uste dut bigarren parte urte bakarrean idatziko dudala”

Noiz argitaratu zenuen liburua?

Urriaren 25ean, Amazonen. Nire argitalpen propioa izan da eta oraindik salmenten lehen txostenaren zain nago. Momentuz, bakarrik eros daiteke Amazonen.

Nola sentitu zara orain?

Beldur naiz. Izan ere, ke saltzaile gisa sentitzen naiz. Uztailean hasi nuen promozioa eta urrira arte ez dut argitaratu eta jendeak ke hori erosi du.

Liburua zenbait Tik Tok influencerri (@vivir_en_libros, @alexliterario, @learnablebyalex eta @raquelandbook) bidali diet eta eurek esan dute bikain dagoela, baina kritika bat heldu arte, airea saltzen ari naiz.

Influencer batzuk jarraitzen nituen eta beste batzuk promozioa gogoko izan dute.

Oso babestua sentitzen naiz. Bai Davidek zein Ainarak asko bultzatu naute. Ainarak esan zidan ezustean harrapatu nuela. Izan ere, nik kimika ikasi dut eta ez dut inolako literatura ikastarorik egin. Mikel Ganzedok ere lagundu ninduen eta azala doan egin zidan. Dirua ezkutuan sartu nion bere liburua- ren kopian, bestela ez zuen onartuko.

Lagunek ere erosi dute eta partekatu dute euren laguneren artean. Duela bederatzi urte ez bezala.

Zeintzuk dira zure erreferenteak literaturan edo idaztean?

Stephen King goian, Rick Riordan, Laura Gallego...

zirriboratu nuen eta konturatu nintzen 1.200 edo 1.300 orrialde behar nituela.

Ez nuen horren liburu luzea idatziko. Irakurleen iritzia behar dut. Horregatik bitan zatitu nuen.

Elkarlanean egin duzu liburua, ezta?

Liburua sakelakoan idatzi dut, inspirazioa etortzen zitzaidanean. Orrialde kopuru dezente izan nuenean hasi nintzen pentsatzen argitaratu behar nuela.

Lagunekin aipatu nuen eta, adibidez, Davidek asko irakurtzen duenez, jakin nahi nuen nire estiloa gogoko zuen. Unea batean, editore lana egiten hasi zen.

Jende gehiagorekin hitz egitean, Ainara Diazek, editore profesionala denez, adierazi zidan doan egingo zidala, nire lehen liburua zelako.

Zein izan da zure lana, David?

David Esperilla: Nik jaso nuen testua eta irakurri bitartean akats ortografikoak zuzentzen nituen eta horrelako gauzak. Ez zen edizio profesionala, Ainarak egindakoa bezalakoa.

Nire lana izan da, gehienbat, lehenengo iritziak ematea liburuari buruz. Irakurle gisa. Nire aburuz, pena merezi zuen. Lan hori egin du aspaldidanik eta nik gogoko dut irakurtzea, uste dut istorio ona dela eta potentziala duela.

Ainarak egin du magia, nolabait esatearren.

Bederatzi urte eman dituzu lehen zatia idazten, bigarrenak zenbat beharko du?

Uste dut urtebetean amaituko dudala. Arazoa da lehen ez nekiela idaztea. Askok irakurri behar izan dut eta mentalizatu behar nintzen istorioa egiteko.

Davidek izugarri animatu ninduen aurrera egiteko,

elkarrizketa



“Komikiko orrietan igarri egiten da oso ondo pasatu dudala marrazten”

RAISA ALAVA (ZUHATZA, 1990) ILUSTRATZAILEAK BERE LEHENENGO KOMIKI LUZEA ARGITARATU BERRI DU: *SUMIDERO*. AZKE BOLADAKO ESTILO KOLORETSUA ALDE BATERA UTZI ETA ZURI BELTZEZKO ERROETARA ITZULI DA. KOMIKIAREN SORMEN PROZESUAZ MINTZATU DA.



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zure lehenengo komiki luzea argitaratu berri duzu. Nolako izan da erregistro berrira egindako jauzia?

Egia esan, urte asko daramatzat fanzineak lantzen eta komikian marrazten oso era laburrean. Erronka oraingo honetan izan da luzapena, kostatu zait hizkuntza nireganatzea, baina azkenean, uste dut pozik geratu naizela emaitzarekin.

Azken urteetako estilo koloretsua alde batera utzi eta zuri beltzera igaro zara. Zergatik aldaketa? Nola definituko zenuke komikiaren estiloa?

Aldaketa baino buelta bat izan da. Niretzat kolorea gauza berri bat izaten jarraitzen du. Arte Ederrak ikasi nituenean, grabatuan ezpezializatu nintzen eta bertan bakarrik zuri beltza lantzen genuen, gehien

“Niretzat kolorea gauza berri bat izaten jarraitzen du”

gustatzen zaidan marrazkia marra gordinarena da. Faltan botatzen nuen hori, azkenean ilustrazioan lan egiten duzunean, normalean koloreak oso garrantzitsuak dira irudia deigarriagoa delako, eta hori lantzen ere asko dsifrutatzen dut. Baina, lehen esaten nuen bezala, bueltatu nahi nuen.

Istorioak "bidaia kosmikoa" eskaintzen dio irakurleari. Zein da komikiaren ardatz nagusia? Zer aurkituko dugu bere orrietan?

Esango nuke nukleoa maitasuna dela, ez erromantikoa bakarrik, baizik eta lagunartekoa baita. Orrietan denetarik dago, humorea, etsipena, obsesioa... eta batez ere uste dut igarri egiten dela oso ondo pasatu dudala marrazten.

Nolako izan da sorkuntza prozesua? Zenbat denbora eskaini diozu proiektuari?

elkarrizketa

Hiru hilabeteetan marraztu dut, baina lan prozesuaren formula bilatzea denbora gehiago eraman dit. Komiki bat lantzearen beldurra niretzat zen aurpegi berdinak behin eta berriro errepikatu behar izatea, eszenatoki berdina beti kalkatu behar izatea... gauza horiek oso aspergarriak iruditzen zitzaizkidan. Imaginatu, autoreari aspergarria iruditzen baldin bazaio, zer pentsatuko dute irakurleek. Azkenean gidoia asko inprobisatu dut, pertsonaiari eta istorioari berari malgutasun gehiago emateko.

AIA argitaletxearekin argitaratu duzu lana. Nola-koa izan da haiekin lan egitea?

Editorea eta biok oso oso lagunak gara, beraz oso erraza izan da. Nire kabuz utzi dit eta erabaki guztiak bion artean hartu ditugu, nigan konfiantza osoa jarri du eta hori eskertzekoa da. Hoberena da.

Non eskuratu daiteke komikia?

Internet bidez, editorialaren webgunean, Amurrio-

“Ez da bide erraza, lan asko egin behar da eta inoiz ezin zara despistatu”

ko Bai Bada liburudendan, Bilboko Anti eta Naubis liburudendetan eta orokorrean liburudenda txikietan.

Zeintzuk dira zure erreferenteak komikigintzan?

Apolo Cacho eta Lale Westvind esango nuke garrantzitsuenak direla, bata mexikarra eta bestea Estatu Batuetakoa.

Oso aske marrazten dute, plazer handia da beraien komikiak ikustea, oso-oso onak dira. Jeinuak, jainkosak.

Frantziako Tourreko kartel ofiziala eta datorren urteko Azkena Rock Jaialdiko kartela sinatu dituzu besteak beste azken urtean. Nola baloratzen dituzu orain arteko lorpenak?

Eskertzen ditut lorpenak, niganako konfiantza baita. Ez da bide erraza, lan asko egin behar da eta inoiz ezin zara despistatu.

Baina ez zait inporta, maite dut aukeratu dudan lanbidea.



bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik /hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

945 712 822
bertako.eus



kultura

Goya sarietarako 15 izendapen jaso ditu Esti Urresolaren 20.000 especies de abejas filmak



Sari eta aipamen ugari jaso ditu Urresolaren lanak. Sirimiri films.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Historia egin du berriz Esti Urresolaren 20.000 especies de abejas filmak: hamabost izendapenerekin, Goya sarien 38. ediziorako izendapen gehien jaso dituen filma da. Baina, horrez gain, sari horien historian izendapen gehien jaso dituen opera prima bilakatu da.

Juan Antonio Bayonaren La sociedad de la nieve izango da Urresolaren lanaren lehiakide hurbilena, 13 izendapenerekin. Kontuan hartu behar da 20.000 especies de abejas Oscar sarietarako ere aurreizendatu zutela, baina Bayonaren filma hautatu zutela azkenean Espainiako Estatua ordezkatzeko.

Aipatu bezala, hamabost kategorietan lehiatuko da zinemagile audioarraren filma Goyetan, eta Urresolak berak bisari jasotzeko aukera izango du: zuzendari berriarena eta jatorrizko gidoi onenarena.

Hambost izendapen

Hauek dira Goya sarietako izendapen guztiak: pelikula onena (Lara Izagirre Garizurieta eta Valerie Delpierre), zuzendari berri onena (Estibaliz Urresola Solaguren), jatorrizko gidoi onena (Estibaliz Urre-

sola Solaguren), emakumezko aktore protagonista onena (Patricia Lopez Arnaiz), gizonetzko aktore onena (Martxelo Rubio), emakumezko aktore onena (Ane Gabarain eta Itziar Lazkano), ekoizpen zuzendaritza onena (Pablo Vidal), argazki zuzendaritza onena (Gina Ferrer Garcia), muntai onena (Raul Barreras), arte zuzendaritza onena (Izaskun Urkijo), jantzi diseinu onena (Nerea Torrijos), makillaje eta ile-apainketa onena (Ainhua Eskisabel eta Jone Gabarain), soinu onena (Eva Valiño, Koldo Corella, Xanti Salvador), eta, azkenik, efektu berezi onenak (Mariano Garcia Marty, Jon Serrano, David Heras, Fran Belda, Indira Martin)

Sari andana

Ibilbide oparoa egin du Urresolaren lanak azken hilabeteetan, Berlinale jaialdian historia egin ostean.

Horrez gain, pelikulak zazpi izendapen jaso ditu Feroz Sarietan, eta bertan ere Urresolak aukera izango du zuzendari zein gidoi onenen sariak eskuratzeko. Gainera, filmaren ekoiztetxeak nabarmendu du 160.000 ikusle joan direla zinema aretoetara pelikula ikustera.

Durangoko Azoka Urduñara iritsi zen astelehenean, Jon Artanoren eskutik

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Durangoko Azoka ez zen iragan igandean amaitu. Abenduaren 11z geroztik Zu Non, Han DA! ekimena abiatu dute azokaren antolatzaileek, Euskal Herriko hainbat liburudendetan barrena.

Astelehenean bertan iritsi zen ekimen berritzailea Aiaraldera, Jon Artanoren eskutik. Kazetari eta idazle zestoarrak Juana liburua argitaratu

du Elkar argitaletxearekin, eta lan hori aurkeztuko zuen Urduñako Mahor liburudendan.

Artanoren azken lana

Tere Mujika bekaren bidez argitaratu du liburua Artanok. Juana Perea Plataren bizitza ikertu du kazetariak. 1937an Bilbotik ihesi Kolonbiara iritsitako familia batean jaio zen emakume hori, eta 2020an erahil zuten. Erahilketa horren nondik norakoak aztertu ditu Zestoako idazleak, Kolon-

biara bidaiatuz, hilketaren dokumentazioa arakatzuz eta lekukoekin mintzatuz, besteak beste.

Orotara, Euskal Herriko 88 liburudendek parte hartuko dute Durangoko Azokaren egitasmoan, abenduaren 11tik 20ra. Zirkuitu horren bidez, azokako nobedadeak emango dituzte ezagutzera, idazleekin aurkezpenak eginda. Urduñan astelehen honetan egingo dena izango da, beraz, zirkuituko lehenbiziko zitetako bat.

EMAKUME SORTZAILEEN III. AZOKA

PARTE HARTZAILEAK
- MMMATRAKA -
(H)IRU CONCEPT STORE
SARA NAJERA - SIGI-SAGA
- KALENA - HARRIKA -
KULUXKA - ESTHER
MARTIN - MERAKI
- LOK.ATZ.

ABENDUAK 17, IGANDEA
11:00 - 14:00 - FAKTORIAN

DOAKO JARDUERA
AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA. Errotari kalea, 4-8 pabilloia 01400 LAUDIO (Araba)
INFO: ☎ 688625900 / ✉ feminismoa@aiaraldea.eus

BORBOR FEMINISMO FAKTORIA

Elkarteko kideek adierazi dute Amurrioko Udalaren jakinarazpena "kasualitatez" jaso zutela eta ondorio larriak ekarri ahal zituela konturatu ez izanak, lokalaren itxiera bera barne.

Burubio Kulturguneko kontzertuak eten dituzte eta elkarteak atsekabetuta dago Udalaren komunikazio moduengatik



Su Ta Gar Burubioko oholza gainean. Aiaraldea.eus

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Burubio Kulturguneko kideak atsekabe daude egun hauetan, azaroan aurreikusita zuten kontzertua bertan behera utzi behar izan zutelako eta zuzeneko emanaldiak eten behar izan dituztelako, momentuz.

Edonola ere, hori ez da euren ondoezaren arrazoi nagusia, baizik eta Amurrioko Udalak erabili dituen komunikazio bideak erabaki horretarako: "Ostiralean gure kideetako bat, kasualitatez, Burubion zegoelarik heldu zen jakinarazpena. Justu une horretan berak notifikazioa jaso izan ez balu, postontzian utzi izango lukete, eta auskalo noiz begiratuko genukeen. Horrek, gerora, arazo larriak ekarri ahal zituen. Izan

ere, larunbatean polizia agertu zen inguruetatik". Elkarteko kideen ustez, "poliziak lokalak itxi ahal zuen eta ondorio larriak ekarri. Izan ere, hemen kontzertuez gain jarduera gehiago daude: entsegu lokalak, ikastaroetarako lokalak. Eta horrez gain, isuna jasotzeko arriskua zegoen. Ez dira horren kontziente izan eta horrek tristura sortu digu".

Larrialdiko irteera

Berez, Burubio Kulturguneko kudeatzaileek ez dute zalantzan jartzen itxieraren arrazoa eta ulertzen dute: "Txosten tekniko batek adierazten du lokalak bigarren irteera behar duela, larrialdietarako, eta hori konpontzeko bidea topatu behar dugu. Arazoa da gaur egun ez dakigula zehazki zer egin behar dugun

kontzertuak eskaintzeko, Udalak ez digu zehaztu". Aiaraldea Komunikabidea harremanetan jarri da Amurrioko Udalaren prentsa zerbitzuekin eta horrek berretsi dio tokiko erakundeak ezin diola baimenik eman Burubiori kontzertuak egiteko larrialdi eta sute araudia ez duelako betetzen: "Bigarren irteera behar dute eta ez dago modurik eraikitzeko. Arabako Suhiltzaileak ere egon dira han proposatzeko nola eraiki bigarren irteera bat, eta ez dute asmatu".

Etsipena sortu diena erabakiaren kudeaketa izan da: "Amurrioko Udalarekin harreman bizia dugu. Udalak aitoritzen du gure jarduera eta, esaterako, ikastaro batzuk hemen eskaintzen dira. Harreman ona eta bizia daukagu teknikariek. Esaterako, aste hone-

tan Kultura eta Jai teknikariek bildu behar ginen gure hitzarmenaren eta jaien inguruan hitz egiteko. Horregatik ez dugu ulertzen zergatik ez digun Udalak berak jakinarazi beste modu batean, zuzenean, kontzertuak egiteko baimenik ez genduela. Ez dauka zentzurik gure azpiegiturak erabiltzea, adibidez, argazkigintza ikastaroak hemen egiteko, eta gero horrelako erabakien berri ez ematea".

Informazio kanalak

Egunek aurrera egin ahala, gainera, sentsazioak okerrera egin du. "Hedabide batean irakurri dugu alkatearen ahotik atzeko partean larrialdiko irteera jartzea ez dela posible, eskailera bat erabili beharko genukeelako eta horrek ez duelako ahalbidetzen ebakuazioa. Lehe-

nengo aldia da horrelakorik entzuten dugula, iruditzen zaigu zintzotasun falta egon dela Udalaren aldetik hau kudeatzeko orduan eta horrek harridura sortzen digu", ziurtatu du kideetako batek.

2016an irekita

Hainbat bazkideren ekarpenarekin ireki zuten Burubio Kulturgunea 2016an eta azken urteetan euskal musika talde ugariaren erreferentzia bilakatu da tokia. Esaterako, Zea Maysek bertan probatu zuen bere azken diskoaren zuzeneko eta Berri Txarrak bere agur biran txertatu zuen. Horrez gain, Durangoko Azokarekin ere kontzertuak antolatu ditu. Entseguetarako lokalak ere baditu, Amurrioko eta eskualdeko taldeen-tzat.

argazki erreportajea

Indar erakustaldia egin du atletismoak azken asteetan Aiaraldean. Laudioiko eta Amurrioko krosek adin guztietako ehunka kirolari elkartu dituzte, eta bi hitzorduen antolatzaileak pozik azaldu dira jasotako harrera beroarekin.

Ehunka kirolari bildu dituzte Aiaraldeko krosek



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Eguraldia lagun, atletismo goiz oparoz gozatzeko aukera egon zen igandean Aiaraldean. Amurrioko Krosaren V. edizioa ospatu da Refor kirolgunean. Ehunka kirolari aritu ziren lehian lasterketan, eta beste horrenbeste lagun egon ziren ibilbidean zehar barreatuta, parte hartzaileei animoak ematen.

Sona handiko korrikalariak aritu ziren lehian, Dani Mateo edota Maurine Jemutai, besteak beste. Biek irabazi zuten kategoría absolutuetan, baina maila orotako korrikalariak izan zuten tokia krosetan, adin eta kategoría asko aritu baitira lehian, haurretatik masterretara.

Oinkariak Atletismo Taldeko kideak oso pozik azaldu dira kirol hitzorduak izandako harrera beroarekin.

Laudio Ibar Krosa

Atleta laudioarrek ere ez diote hutsik egin kros lasterketen egutegiari, eta iragan azaroaren 26an Laudio Ibar Krosaren XXXVIII. edizioa ospatu zuten.

700 kirolari elkartu ziren Ellakuriko zelaietan. Orotara, hamabi lasterketa egin ziren goiz osoan zehar, eta adin guztietako kirolariak aritu ziren lehian, Haurretatik 55 urtetik gorakotara.



argazki erreportajea



Erabili meloia Gorde erosketa-tiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



www.kontsumobide.eus

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

kirola

FUTBOLA

Aingeru Olabarrieta Athleticceko lehen taldeko deialdian sartu zen iragan astean, debutatu ez zuen arren



Aingeru Olabarrieta, artxibo irudi batean. Chris Gomez

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aingeru Olabarrieta gaztea Athletic Clubeko lehen taldeko deialdian sartu zen iragan astean. Izan ere, bilbotarrek Cayon klub kantabriarraren aurka jokatu zuten abenduaren 7an Errege Kopan eta Ernesto Valverde entrenatzaileak aukera baliatu zuen titularrak ez diren jokalaria hasierako hamaikakoa jar-

0-3 irabazi zion Athletic Clubak Cayon talde kantabriarrari, baina Olabarrietak ez zuen minuturik izan zelaian

tzeko eta filialeko gazteak deitzen. Horien artean egon zen Aingeru Olabarrieta. Luiaondoarra lehenengo aldiz sartu zen talde nagusiaren egunerokoan, baina ez zuen debutatu.

Edonola ere, Valverderen deiak aiararrak Bilbao Athleticen eginiko lana saritu du. Izan ere, denboraldi honetan jadanik hiru gol egin ditu, horietako bi AD San Juan taldea-

FUTBOLA

Amurrio Clubarekin galdu ondoren, entrenatzaileak aldatu ditu CD Laudioko lehen taldeak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azaroko azken igandean jokatutako Aiaraldeko derbiak kirol biktimak utzi ditu Ellakurin. Izan ere, Amurrio Clubarengaraipenak sakondu du laudioarren emaitzen krisialdian (hamaikagarren porrota izan da, eta azken sailkatua lau puntura dute) eta horrek aldatu ekarri ditu entrenatzaileen artean.

Gauzak horrela, CD Laudiokerabaki du, David Lararekin eta Mikel Zabalondorekin batera, eurek alde

batera egitea eta Ander Rodriguez eta Gorka Martinezi entrenatzeko ardurak ematea.

CD Laudiok adierazi du pozik egon dela Lara eta Zabalondoren lanarekin, baina garaipenak lortu ez dituztela ikusita, Rodriguez eta Martinezi eman diete aukera.

Entrenatzaile berriak CD Laudioko jokalaria izan dira eta Ella-kurira heldu baino lehen, CD Ugao-ko gazteak, CD Orduña eta CD San Prudencio entrenatu dituzte. Azken bi klub horiekin kategoria igoerak eskuratu zituzten gainera.

JUDO

Hogei domina baino gehiago eskuratu ditu aurten Amurrioko Judo



Amurrioko Judo Klubeko kideak. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Judo Klubak dominen uzta aipagarria izan du 2023an eta bi dozena garaikur baino gehiago batu ditu bere

palmaresera. Bere parte hartze arrakastatsua Euskadiko eta Arabako Txapelketetan izan dira nagusiki. Arabako Txapelketan kirolari seniorrek ere partaidetza oso ona izan zuten.

etxaurre

higiezin agentzia

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

94 672 85 50

BEZEROARENTZAKO ARRETA

Zumalakarregi 38
01400 Laudio

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak

QUICK PC REPAIR

Informatika argi eta erraz

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA gainkosturik gabe

- Salmenta · Konponketak
- Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako
- Bezerearen premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12

www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urtarrilaren 24an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Galder

Zorionak Galder! Muxu eta besarkada erraldoi bat Amurriotik Zaballara! Maite zaitugu!

Amurrioko herria



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

	2						8	
			5		2	7		3
	5			6		4		
			4				3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ZAILA

		3		7					6
4						9		8	3
	7				2	3			5
6				4					
	5					2	6		7
			4	3		5			
	6			8		4	5	3	
			3	2	5				
5	4				3	7			9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



David Isasiren disko berria zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

David Isasiren disko berriaren zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Abenduaren 22a, 15:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

ZUHAITZEN INBENTARIOA

Idazlea: Virginie Aladjidi
Ilustratzailea: Emmanuelle Tchoukriel
Argitaletxea: Pamiela



Bilduma baten liburuetako bat da. Zuhaitzak ezagutzeko aukera ematen digun liburu handia da. Zuhaitzen ilustrazioa eta bere bitzta kontatzen digu.

HELDUENTZAKO GIDA

Idazlea: Yaiza Arrizabalaga
Argitaletxea: Ttartalo



Izarkom Euskal Herriko telekomunikazio kooperatibak, nerabeen sakeleko erabileraren inguruko gida atera du. Gidan, gailua eskuratzeko beharraz, erabilerari buruzko kontsietzia, egoki erabiltzeko gomendioak... topatuko dituzu.

2023 NEGULEKUAK FAKTORIAN

09:30-13:30

1. TXANDA: Abenduaren 26tik 29ra
2. TXANDA: Urtarrilaren 2tik Sera

2020-2013 ARTEAN JAI OAK



IZEN EMATEA:

www.labur.eus/negulekuakF2023

PREZIOA:

BAZKIDEAK:

1. TXANDA: 60€ 2. TXANDA: 100€

EZ-BAZKIDEAK:

1. TXANDA: 70€ 2. TXANDA: 120€



kokoriko@aiaraldea.eus
693 855 312 (Onintze)
Errotari kalea, 4-8 pabilioia 01400 LAUDIO (Araba)

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Euskarak etorkizunik al du?



Euskararen Nazioarteko Eguna pasa berri dugu, abendua data horrek hasten du eta Olentzero eta Mari Domingik itxi egiten dute.

Euskarak hartzen du ardatza hilabete honetan. Haurrekin egiten dugun ekintza oro baliagarria dela argi dago, argi dagoen bezala zerbait gehiago egin behar dela. Arazo larria dago eskualdean, ez bakarrik erabiltzen ez delako, baizik eta ulermena eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna ere gero eta txikiagoa delako.

Euskararen egunak antolatzen ditugu, Euskaraldiak, Korrika, Ikastolen jaiak ere antolatzen dira euskara hedatzeko helburuarekin... Baina ez da nahikoa. Orduan zeintzuk dira gakoak gure haurrek euskaraz egin dezaten?

Ez da erantzun erraza, eta ez dut uste "makiltxo magiko" batekin konpondu daitekeen zerbait denik. Hala ere, egiten duguna baino gehiago egin daitekeela ere uste dut.

Alde batetik, ezin zaie euskararen erabilera sustatzeko zama guztia eskolei eman. Etxea eta mugitzen garen inguruak ere eragin handia dute. Etxean dakiguna, gutxi bada ere, euskaraz egitea ezinbestekoa da, baita txarto egin arren. Haurrek euskara hizkuntza bizia dela ikusi behar dute, hori beraien bizitzetan espermentatu, bestela gune jakin batzuetan egiten den horretan geratuko da. Ingurune euskaldunetara joatea ere garrantzitsua iruditzen zait, hau da, euskaraz antolatzen diren ekintzetan parte hartzea, euskal kultura kontsumitzea... Helduek euskaraz ez badakite, modu polita izan daiteke haurra euskararen munduarekin harremana izateko.

Bestetik, uste dut zorrotzak izan behar garelako kontu batzuekin. Haurrei bideratutako ekintza oro, zein iruditegi oro euskaraz bermatua egon beharko litzateke. Gaur egun komunikazioan eta Interneten euskararen presentzia oso txikia da, eta hau handitu egin behar da. Euskaraz gauza interesgarriak egin behar dira edo itzuli egin behar dira.

Azkenik, ulermenean eta hitz egiteko gaitasunean zentratu egin behar gara. Haur batek euskaraz ondo hitz egiteko gaitasunik ez badu, bere lehen hitza ez da hizkuntza horretan izango.

Hasieran esan bezala, Olentzero eta Mari Domingi gurera datoz, ekar diezaguten euskara eta hedatu dezagun gure haur eta nerabeen ahotsetan hizkuntza bizia!



ALdea dago!

Erreparatu ongi bi irudiei, eta markatu bien artean dauden aldeak. 20 dira guztira.

Sudokua

A			E
		R	
	E		
O			

Bete hutsuneak, EROA hitza osatzen duten hizkiak (E, R, O, eta A) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Gabonetako dominoa

Osatu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan.

Domino pieces: [Penguin | Holly], [Empty | Empty], [Ornament | Star], [Penguin | Empty], [Empty | Gingerbread].

Itzala

Zein da izeiaren itzal zuzena?



SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura

Aimar Sanjurjo

JAIOTERRIA
LAUDIO (1997)

BIZILEKUA
BELGIKA

BIDAIAREN XEDEA

LAN EGITERA JOAN DA BELGIKARA, EUROPAR
BATASUNEN TELEBISTAKO KAMARA GISA



BELGIKA



DESKRIBAPENA

Europa mendebaldeko estatu burujabea da. Monarkia konstituzional federala da. Bi eskualde nagusik osatzen dute: Valonia frantsesdunak hegoaldean, eta Flandria nederlanderaduna iparraldean. Tartean Bruselako eskualdea dago. 1830. urtean lortu zuen burujabetasuna, Herbehereetatik berezita.

AZALERA

30.528 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

11,55 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Nederlandera, frantsesa, alemana, luxenburgera.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio, Araba. 01400
Telefonok: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

“Euskara Europar Batasunean ofiziala egiteko prozesua zerotik bizi izan dut”

Bruselan zaude lanean, zer egiten duzu zehazki?

Europar Batasuneko telebistako kamara moduan egiten dut lan Bruselan hedabide ezberdinekin.

Zenbat denbora daramazu bertan? Nola sortu zitzaizun bertan lan egiteko aukera?

Ba urte erdi baino apur bat gehiago daramat jada Bruselan. Betidanik izan dut noizbait atzerrira mugitzeko ideia buruan eta, telebistara sartu nintzenez Bilbon, aukera aparta ikusi nuen korrespontsalia batera mugitzeko. Zaila bada ere plaza kopuru aldetik korrespontsalia bat lortzea, ezetza aurretik izanda, nire burua eskeini nuen eta horrela sortu zitzaidan Bruselara etortzeko aukera.

Zure lanari esker Europa-ko aktualitateko kontu asko zuzenean jarraitzeko aukera duzu. Nolako da zure eguneroko lana?

Gure eguneroko lan gehiena europako instituzioen agendak markatzen du. Maila nazional zein nazioarteko albisteen berri ematen dugu hemendik eta horrek aktualitatearen zuzeneko jarraipena egitearen aukera ematen dit. Euskara, katalana eta galegoa Europar Batasunean ofizial egiteko prozesua zerotik bizi izan dut hemen, adibidez, eta horrelakoen prozedura ikustea oso aberasgarria da.

Oso desberdina da Bruselan garatzen duzun jarduna eta Euskal Herrian egiten zenuena?


Teknikoki oso antzekoa da jarduna, baina edukiak oso ezberdinak dira. Euskal Herrian komunikabidearen sekzio askotarako egiten nuen lan (kultura, jendarte, kirolak etab...) eta horrelakoak batzutan *kubritzea* faltan botatzen da.

Noizbait komentatu dugu hemengo lankideen artean ere, Europa mailako albisteen burbui-lan sartzen gara eta tokiko albisteak faltan botatzen ditugu askotan.

Noiz arte geratuko zara bertan?

Hasieran sei hilabeterako etorri nintzen eta momentuz luzatuko dut esperientzia... Beraz oraingoz ezin diot nire etxerako bueltari data konkreturik jarri (barreak).

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA